PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

ASISTENTZIA PSIKIATRIKO ANBULATORIOKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO GIPUZKOAKO OSASUN-BARRUTIAN ETA BIZKAIKO MUGAKO EREMUAN, GARAPENAREN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN HAUR ETA GAZTEENTZAT"

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA, GARAPENAREN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN HAUR ETA GAZTEENTZAT ASISTENTZIA PSIKIATRIKO ANBULATORIOKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO, GIPUZKOAKO OSASUN BARRUTIAN ETA BIZKAIKO MUGAKO HERRIETAN

1. - KONTRATUAREN XEDEA.-

1.1. - Enpresa esleipenduna haurren eta gazteen garapenaren nahasmendu orokortuen arreta psikiatrikorako kontratatzen da, monografikoki, erregimen anbulatorioan eta diziplina anitzeko taldeekin.

1.2. - Aipatutako zerbitzuak kontratu honen 3.1 puntuan zehazten dira, eta Euskadiko Osasun Sistemak babestutako biztanleentzat dira, aurrerago zehazten diren hedadura eta baldintzekin, indarrean dagoen araudiaren arabera eta, betiere, errespetatuta ekipamenduak homologatzeko baldintzak, instalazioetako segurtasunekoak eta Europako, Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritako beste batzuk, asistentzia-gaitasuna eta –ahalmena beste mugarik gabe.

1.3. - Kontratu honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ahalmena ematen dio enpresari kontratatutako zerbitzuak emateko Euskadiko Osasun Sistemaren paziente guztiei, dagokien Lurralde Ordezkaritzak esleituta eta aldez aurretik agindu klinikoa emanda.

2. -EREMU GEOGRAFIKOA.-

Kontratatutako enpresari Euskadiko Osasun Sistemak babesten duen Gipuzkoako Osasun Barrutiko biztanleria esleituko zaio, eta baita Bizkaiak Gipuzkoarekin mugakide duen eremua ere (Ermua eta Mallabia). Horrez gain, pazienteak deribatu ahal izango zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetatik.

Hala ere, bere asistentzia emateko gaitasunak ahalbidetzen duen neurrian, kontratu honen bidez laguntza eman ahal izango die beste osasun-sistema publiko batzuetako erabiltzaileei.

3. -KONTRATATUTAKO ZERBITZUEN EZAUGARRIAK.-

3.1. – KONTRATATUTAKO PRESTAZIOAK

Kontratatutako enpresak Euskadiko Osasun Sistemak babesten dituen erabiltzaileak artatuko ditu, bere giza baliabideekin eta baliabide teknikoekin, eta asistentzia-euskarriaren konplexutasunaren arabera, honako zerbitzu hauek emango ditu

- Banakako saio terapeutikoak.
- Taldeko saio terapeutikoak.
- Lehenengo kontsultak.
- Hurrengo kontsultak.

3.2. – BALDINTZA TEKNIKOAK ETA EKIPAMENDUA

3.2.1.- Kontratatutako prestazioak enpresak emango ditu giza baliabide eta baliabide material espezializatuekin, bete daitezen kontratu honetan zehaztutako kalitate-helburuak eta baldintza tekniko-asistentzialak.

3.2.2.- Enpresako ekipamendu eta tresneria egoera funtzional onean egongo da, eta behar adinako kopuruan, gutxienez kontratu honen xede diren teknika guztiak egiteko moduan.

Era berean, berrikuntza-mailari eutsiko diote, kontuan hartuta segurtasun eta eraginkortasun klinikoan ebidentzia zientifikoa egiaztatu duten aurrerapen teknologikoak.

3.2.3.- Kontratatutako enpresa pazienteen segurtasunaren eta pazienteak artatzearen ondorio administratibo edo juridikoen erantzulea da, kontratu honetan jasotako edozein asistentzia-modalitatetan. Horretarako, erantzukizun zibileko aseguru bat izango du, estaliko dituena Euskadiko Osasun Sistemak aseguratutako pazienteei emandako zerbitzuak izan ditzakeen arriskuak, eta Osasun Sailari jakinaraziko dio horren estaldura, zenbatekoa eta poliza-zenbakia.

Nolanahi ere, enpresak beti beteko du maiatzaren 17ko 78/2016 Dekretuan xedatutakoa, Euskadiko osasun-zentroetan eta -zerbitzuetan osasun-laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriei buruz.

3.2.4.- Enpresak instalazio egokiak eta kalitate nahikoa dutenak prestatuko ditu arreta pertsonalizatua bermatzeko, eta pazienteen baldintza klinikoek gomendagarri egiten dutenean, espazio fisiko bereizia duten asistentzia-unitate espezifikoak ezarriko ditu.

Bestalde, bere egiturak honako hauek bermatuko ditu:

- Sarbide erraza, arkitektura-oztoporik gabe, eta larrialdietarako irteerak, ondo kokatuta eta seinaleztatuta.

- Harrera-gunea edo itxarongela.

- Administrazio-eremua eta dokumentazio klinikoa artxibatzekoa.

3.2.5.- Lehenengo mediku batek artatuko ditu pazienteak, eta hark aztertuko ditu. Berria bada, historia klinikoa irekiko du, eta, diagnostikoa egin ondoren, behin-behinean ezarriko ditu errehabilitazioko helburuak eta hasierako saio terapeutikoen erregimena.

3.2.6.- Asistentzia anbulatorioan egingo da, banakako edo taldeko saio terapeutikoetan egunak eta orduak jarrita eta pazientearen ardura duen enpresako medikuaren iritzia kontuan hartuta.

3.2.7.- *Saio terapeutiko indibiduala* egun batean egiten den terapia da, denboran errepikakorra izan ohi dena, fakultatiboak (psikiatra edo psikologoak) paziente bati egiten edo monitorizatzen diona, bere mediku arduradunak adierazitakoaren arabera.

Lanaldi batean paziente batekin egiten diren banakako edo familiako ekintza terapeutiko guztiak barne hartzen ditu.

Ezin izango da fakturatu saio bat baino gehiago egun berean, ezta tratamendurik eman ez den egunik ere.

3.2.8.- Taldeko saio terapeutikoetako hileko kanonak barnean hartzen ditu fakultatiboek (psikiatrak edo psikologoak) egiten dituzten taldeko ekintza terapeutiko guztiak, egiten dituztenak bai garapenaren nahasmendu orokorrak dituzten haur eta gazteekin, bai haien gurasoekin.

3.2.9.- Kontratu honetatik kanpo geratuko dira 18 urte bete dituzten paziente guztiak. Beharra ikusiz gero, horiek Osakidetzako Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sareko zerbitzuetara bideratuko dira, dagokien txosten klinikoarekin.

3.2.10.- Fakturazioari dagokionez, *lehen kontsultatzat* hartuko dira medikuak diagnostiko zehatza eta hasierako plan terapeutikoa jartzeko egindako **lehenengo lau** kontsultak.

Paziente berri deribatuen kasuan, saiorik programatzen ez bazaie –kontratuko asistentzia-tratamenduek mesede egiten ez dietelako enpresako fakultatiboen iritziz–, bi bakarrik fakturatu ahal izango dira.

Hurrengo kontsultatzat hartuko dira enpresarekin izandako harreman asistentzial baten ondorioz (lehen kontsulta edo tratamendua), pazienteen kontrol eta jarraipen klinikoa egitea helburu dutenak.

Pazienteek enpresarekin duten asistentzia-harremana urtebetez edo gehiagoz etenez gero, paziente berritzat hartuko dira, administrazioaren ikuspuntutik, enpresan tratamendua berriro hasten badute.

3.2.11.- Enpresan onarpen-eremu zentralizatu bat egongo da, eta hitzordua eskatu ahal izango da bertara joanda, telefonoz edo beste edozein modu egokiren bidez, ahalik eta lasterren arreta jasotzeko. Onarpen-unitate horrek eskatuko die pazienteei, edo, bestela, senideei, enpresara deribatua izateko edo bertan ikusia izateko agintzen duen dokumentu klinikoa.

3.2.12.- Ekipamenduan, tresnerian edo enpresaren egitura fisikoan aldaketa nabarmenak egiten badira, aldez aurretik Osasun Sailari jakinaraziko zaio.

Aldaketa horiek murrizketak edo galerak badakartzate zerbitzuaren kalitatean edo kopuruan, dagokion desegite-espedientea hasiko da, enpresari jakinarazi ondoren ahal izanez gero zuzen dezan.

3.2.13.- Zerbitzu berriak sortu eta aldatzeari dagokionez, enpresak administrazio-baimenaren espedientea izapidetu beharko du, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen baimenak arautzen dituen otsailaren 21eko 31/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

3.2.14.- Paziente eta erabiltzaileen arreta eta zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak kudeatzeari dagokionez, uztailaren 21eko

147/2015 Dekretuaren IV. kapituluan xedatutakoa beteko da (147/2015 Dekretua, Euskadiko osasun-sisteman pertsonek dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko adierazpena onartzen duena). Halaber, enpresan erreklamazio-orriak egongo dira paziente guztien eskura, Osasun Sailak ezarritako ereduaren arabera (uztailaren 15eko 142/2014 Dekretua).

Erabiltzaileak kexan edo erreklamazioan araudian aurreikusitako bideetatik aurrera jarraitzen badu ere, enpresako zuzendaritzak idatziz erantzun beharko dio, eta artxibatu egin beharko ditu erantzun hori, kexa edo erreklamazioa eta horri buruzko dokumentazio guztia. Horrez gain, enpresak espediente osoaren kopia (erreklamazioa, erantzuna eta dokumentazioa) bidaliko du dagokion Osasuneko Lurralde Ordezkaritzara.

3.2.15.- Enpresaren sistema informatikoak egokituta egongo dira Osakidetzako eta Osasun Saileko sistemekin bateragarriak izateko, informazio klinikoaren transmisioa, kontratatutako prestazioen kudeaketa eta horien ebaluazioa ziurtatuko dituen konexioa bermatzeko, hori guztia legean aurreikusitako berme guztiekin.

Alde horretatik, enpresak eman beharreko zerbitzuen barruan, baldintza gehigarri eta ezinbestekotzat jotzen da agiri honetan aurreikusitako datu-baseak egitea eta ematea, honako informazio hau biltzen dutenak:

- Analisi epidemiologikoa.
- Fakturazioa.
- Emandako zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioa.

3.3.-LANGILEEN KUALIFIKAZIOA

3.3.1. – Asistentziaren arduraduna den aldetik, enpresak kontratu honetako teknikak egiteko behar den espezialista-titulua duten fakultatiboak izan beharko ditu.

3.3.2. – Alde horretatik, eta asistentzia-eskariaren proportzioan, enpresak langile espezializatuak, erizainak eta osasun-laguntzaileak izango ditu, behar adinako kualifikazioarekin, esperientziarekin eta kopuruarekin tratamenduak betetzeko eta pazienteen kontrol eta jarraipen egokia egiteko; eta baita behar adina administrari eta laguntzaile ez-sanitario ere kontratatutako jardueraren euskarri eta laguntzarako.

3.3.3. - Enpresako asistentzia-koadroaren aldaketak Osasun Sailari jakinaraziko zaizkio aldez aurretik.

Aldaketa horiek kontratatutako zerbitzuen edukiari nabarmen eragiten badiote espezializazioa murrizteagatik edo galtzeagatik, estaldura egokia emateko eskatuko zaio enpresari, edo, bestela, kontratua desegiteko espedientea hasiko da.

3.3.4. – Saio klinikoak jarriko dira enpresak egoki ikusten duen aldizkakotasunarekin, baina bi hilean behin gutxienez bat egiten bada. Bertan, laguntza-taldea mediku arduradunarekin bilduko da, eta paziente bakoitzari buruzko puntu interesgarriak komentatuko dira. Agiri bidez egiaztatzeko, saio klinikoen erregistro bat egongo da.

3.4. - DOKUMENTAZIO ASISTENTZIALA.-

3.4.1.- Pazientearen historia klinikoak emandako asistentziatik sortutako dokumentazioa bilduko du, horrela jasota baitago araudi honetan: azaroaren 14ko 41/2002 Legea, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituena; martxoaren 13ko 38/2012 Dekretua, historia klinikoari eta pazienteek eta osasun-profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoa, eta irailaren 3ko 1093/2010 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionaleko txosten klinikoen gutxieneko datuen multzoa onartzen duena.

3.4.2. – *Tratamendu-orriak* egongo dira, banakako historia klinikoan sartuko direnak, eta bertan asistentzia-langileek aldizka jasoko dituzte paziente bakoitzaren ezaugarriak eta bilakaera eta aurrerapen terapeutikoak.

3.4.3. - Beharrezkoa den guztietan, eta enpresan tratamendua amaitzen denean beti, fakultatibo arduradunak *txostena* egingo, honako hau jasoko duena: diagnostikoa, egindako tratamendua, pazientearen momentuko egoera eta gomendioak.

3.4.4. - Enpresak tratatutako patologien kodifikazio diagnostikoa egin beharko du, GNS Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren bidez, betiere Administrazioak egiten dituen kodetze-gomendioei jarraituz.

3.5. - INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANAK ETA SEGURTASUNA.-

Ekipamenduaren segurtasuna bermatu eta arriskuak saihesteko, enpresak laguntza teknikoko zerbitzu izango du, propioa edo kontratatua, mantentze-lan prebentiboak eta ohikoak egingo dituena eta matxurak konponduko dituena.

3.6.- ASISTENTZIA-BERMEA.-

Kontratu honetan jasotako erabiltzaileen eskubideen bermeez gain, enpresak asistentzia-langileen dedikazio egokia bermatuko die Euskadiko Osasun Sistemaren erabiltzaileei. Horretarako, enpresako langileen zerrenda aurkeztu beharko da, dedikazio-orduak zehaztuta.

3.7.- KONTRATATUTAKO PRESTAZIOEN KALITATEAREN EBALUAZIOA. -

3.7.1.- Osasun Sailak parametro hauek ebaluatuko ditu:

Adierazleak	**Estandarra**	**Puntuazioa**
Erregistroaren kalitate-adierazleak		**54**
Datu-basea behar bezala beteta	Aldagaien % 100	54
Zerbitzuarekiko gogobetetasun-adierazleak		**10**
Erreklamazio idatzien kopurua/paziente-kopurua	≤0,2 %	5
30 egun baino lehen erantzundako erreklamazioak	100%	5
Dokumentazio klinikoa bete izanaren adierazleak		**20**
Historia klinikoen kopurua/paziente-kopurua	100%	5
Alta-txostenen kopurua/alta-kopurua	100%	5
Kodetutako alta-kopurua/alta-kopurua	100%	5
Tratamendu-orrietan egindako bilakaera-oharren kopurua/hilabetea	≥ 1	5
Zerbitzuaren irisgarritasun-adierazleak		**10**
Eskaeratik eta elkartearekin izandako lehen harremanera igarotako egunak: < 10 egun	≥ 80%	3
Elkartearekin lehen harremana izan denetik lehen kontsultara igarotako egunak: < 20 egun	≥ 80%	3
Lehen kontsultatik tratamendua/terapia hasi arte igarotako egunak: < 120 egun	≥ 70%	4
Tratamenduaren jarraipen-adierazleak		**6**

Enpresak bertan behera utzitako saioen kopurua guztira/Programatutako saioen kopurua guztira		
• Bakarkakoak	≤ 5 %	1
• Taldekoak	≤ 5 %	1
Laguntza-taldearen saio klinikoen kopurua, guztira/urtean	≥ 5	2
Borondatezko alten kopurua/alta guztien kopurua	< 5%	2
GUZTIRA		**100**

Adierazle horiek enpresak prestatu eta aurkeztuko ditu, eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan egongo dira, ekitaldi bakoitzaren hurrengo urteko otsailaren 1a baino lehen.

Era berean, enpresak haur eta gazteen psikiatriako taldeentzako asistentzia-adierazleak aurkeztuko ditu, Osakidetzako Lurralde Ordezkaritzak edo Osasun Mentaleko Zerbitzuen Zuzendaritzak eskatuta eta adierazten zaion maiztasun eta moduan.

3.7.2.- Kontratuaren finantzaketa osoaren % 1 lotuta dago atal honetako adierazleetako helburuen urteko lorpenari. Horrela, lortu ez diren helburuen proportzioan murriztuko da finantzaketa osoa, aurreko atalean jasotako adierazleen eta puntuazioen arabera. Helburu horiek eta adierazleak urtero berrikusi ahal izango dira. Murrizketa hori zigor gisa jasotzen da Berariazko Klausula Administratiboen Pleguan.

Helburuak bete izanaren ebaluazioa eta, hala badagokio, horiek ez lortzeagatik izan daitekeen deskontuaren aplikazioa, enpresaren alegazioak ikusita egingo da, hurrengo urteko lehen hilabeteetan, ekitaldia amaitu ondoren eta horri dagokion finantzaketa osoa ezagututa, eta kontratatutako enpresari ordaintzeko dagoen lehen fakturari aplikatuko zaio, behin betiko doikuntza egin ondoren. Erregularizazio hori ekitaldi osoaren gainean egingo da, edo kontratu berriari dagokion aldiaren gainean, kontratua hasten den urtean.

3.7.3.- Kontratuaren xede den prestazioa monitorizatu eta ebaluatzeko, enpresak datu-base bat aurkeztuko du hilero Lurralde Ordezkaritzan, une bakoitzean egiten diren argibide teknikoak jasoko dituena.

Hasiera batean, datu-baseak artatutako paziente bakoitzaren honako aldagai indibidualizatu hauek izango ditu gutxienez:

- **Identifikazio-aldagaiak:** jaioteguna, izena, 1. abizena, 2. abizena, sexua, OTI zenbakia, bizi den udalerria, bizi den probintzia.
- **Eskaera:** mediku eskatzailea, zerbitzua, ospitalea (izena jarri), osasun mentaleko zentroa edo lehen mailako arretakoa (izena jarri).
- **Jarduera:** pazientearen diagnostiko nagusia (GNS 10), ospitaleratze-data, hilabetean jasotako errehabilitazio-saioak eta egindako kontsultak (lehenak eta hurrengoak) eta alta-data (hala badagokio).

3.7.4.- Osasun Sailak jakin ahal izango ditu, kasu bakoitzean zehazten den prozeduraren bidez, enpresan artatzen diren pazienteen historia klinikoaren eta alta-txostenaren betetze-maila eta kalitatea.

Azterlan horiek egiteko eskatzen diren datuak honela babestuta egongo dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen Sekretu Estatistikoaren Betebeharra eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

4. - ZERBITZUETARAKO ESKUBIDEA.-

4.1. – Enpresako Onarpen Zerbitzuak osasun-laguntza Euskadiko Osasun Sistemaren kontura jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentazioa eskatuko die pazienteei edo, hala badagokio, haien senitartekoei, bai eta dagokion sare publikoko medikuak emandako laguntza- eta bidaltze-agiria ere, dagokion lurralde-ordezkaritzako organo eskudunak onetsia, beharrezkoa bada.

Nolanahi ere, kontratatutako enpresak Lurralde Ordezkaritzak definituta dituen edo etorkizunean definituko dituen zirkuitu eta protokoloei jarraituko die, kontratu honetan jasotako prestazioei dagokienez.

4.2.- Pazientea larrialdi batean artatzen badute, dagokion dokumentazioa aurkeztu gabe, enpresaren Onarpen Zerbitzuak kudeatuko du hura lortzea, eta hori gabe ezin izango da fakturatu laguntza hori kontratu honen kargura.

Horretarako, hala eskatzen zaionean, zerbitzu horrek kasuari buruz enpresak duen informazio kliniko edo administratibo guztia emango dio Lurralde Ordezkaritzari edo pazienteari.

4.3.- Pazienteari emandako prestazioaren ondorioz gorabehera edo albo-ondorio garrantzitsuren bat gertatuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi beharko zaio dagokion lurralde-ordezkaritzari.

5.- ERABILTZAILEAREN ESKUBIDEEN BERMEA.-

5.1. - Kontratatutako enpresak bete beharko du Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/97 Legean aurreikusitakoa erabiltzailearen eskubideak bermatzeari dagokionez, eta herritarrei bere eskubideen berri eman eta bermatuko ditu. Betebeharren berri ere emango die, Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren 9. eta 10. artikuluetan eta uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuan jasotako baldintzetan (Dekretu horren bidez, pazienteek Euskadiko sistema sanitarioan dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko adierazpena onartzen da). Horrez gain, kontratu honen arabera artatzen dituen paziente eta erabiltzaileei informazioa emango zaie, kontratu honetan eragina izan dezaketen alderdiei buruz eta Osasun Sailaren arau eta jarraibideei buruz.

Bereziki zaindu beharko dira intimitatearen, tratuaren eta arreta pertsonalizatuaren alderdiak.

5.2. - Kontratatutako enpresak inkesta estandarizatu bat egingo du urtero, indarrean dagoen kontratuko zerbitzuei buruz erabiltzaileek duten gogobetetze-maila ezagutzeko. Lortutako datuak babestuta egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen Sekretu Estatistikoaren Betebeharraz eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren bidez.

5.3.- Pazienteei emandako osasun-laguntzan ez da inolako desberdintasunik egingo, edozein dela ere haien jatorria, etnia, generoa, sexu-orientazioa, kultura edo jatorria, eta asistentzia-modalitate guztietan. Arreta berezia jarriko da desgaitasuna duten pazienteen kolektiboari tratu-berdintasuna emateko eta kontratuan jasotako prestazioetarako irisgarritasuna eskaintzeko, eta, horretarako, beharrezko egokitzapen teknikoak egingo dira kontratatutako enpresan.

Onarpen Zerbitzua bakarra izango da.

5.4. - Kontratatutako enpresaren erabiltzaileek, Euskadiko Osasun Sistemak babestuta, haiek sortutako gastuak ezagutu ahal izango dituzte, haiek zuzenean ordaintzen ez badituzte ere.

5.5. - Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legea betez, enpresak konpromisoa hartzen du pazienteei eta/edo laguntzaileei egingo den prozedura diagnostikoaren edo terapeutikoaren alderdi guztien berri emateko, modu egoki, ulergarri eta nahikoan, horretarako ahal dela baimen informatua erabilita.

6.- LANGILERIARI BURUZ.-

6.1. - Enpresak administrazio publikoetako langileen bateraezintasunei buruz xedatutakoa beteko du. Horretarako, behar bezala eguneratuko du Osasun Sailaren esku dauden fakultatiboen eta gainerako langileen koadroa.

6.2. - Lan-harremanen titulartasuna osasun-zerbitzuak kontratatzen dituen enpresaren jabe edo kudeatzaileen erantzukizun esklusibokoak dira.

Era berean, enpresak behar diren langile guztiak kontratatu beharko ditu, eta enpresaburu gisa dagozkion eskubide eta betebeharrak bete beharko ditu, indarrean dauden xedapen guztiak aplikatuz, bai lan-arloan, bai laneko prebentzioari eta osasunari dagokienez.

6.3. - Kontratatutako enpresan gatazka kolektibo/greba egoera gertatzen bada, Osasun Sailak behar besteko aurrerapenarekin jakin beharko du onartzen den gutxieneko zerbitzuei buruzko akordioa.

6.4- Langileen hizkuntza-gaikuntzari dagokionez, enpresak bete beharko du administrazio-klausula zehatzen agirian jasotakoa, "Betebeharreko Hizkuntza Baldintzak" atalean.

7.- BALDINTZA EKONOMIKOAK.-

7.1. - Jarritako tarifetan, kontratu hau indarrean dagoen bitartean ezarri diren edo ezar daitezkeen legezko zerga, tasa eta karga guztiak sartzen dira.

7.2.- Kontratu hau indarrean dagoen bitartean, jarduera-bolumenari edo gastuari buruzko konpromisoak ezarri ahal izango dira, enpresak laguntza-prozesuetan kontratatutako zentro eta zerbitzuetara bideratzen dituenen gainean.

8.- FAKTURAZIOA.-

8.1. - Kontratatutako enpresak, hileroko hogeia baino lehen, aurreko hilean emandako osasun-zerbitzuen faktura elektronikoa bidaliko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuari, eta Osasun Saileko Lurralde Ordezkaritzari dagokion dokumentazioa, kontratu honetako baldintza teknikoen 4.1 estipulazioaren arabera.

8.2.- Enpresak egindako jardueren zerrenda aurkeztu beharko du, Osasun Sailak aukeratzen duen euskarri informatikoan eta eskatzen dituen zehaztapenei jarraituta, fakturan dauden datuen egiaztapen automatizatua errazteko.

8.3. - Kontratu honen bidez bakar-bakarrik fakturatu ahal izango dira berariaz jasotzen diren prestazioak, eta ez hortik kanpo gelditzen den edozein zerbitzu edo osagarri.

8.4. - Faktura jaso eta egiaztapenak egin ondoren –eta horretarako behar duen informazio guztia eskatu ahal izango dio enpresari–, Lurralde Ordezkaritzak ordainketa aginduko du, enpresak emandako zerbitzuen arabera.

8.5. - Lurralde Ordezkaritzak fakturazioarekin ados ez dagoela adierazten badu, fakturazioa atzera bota eta zer gorabehera dauden jakinaraziko da, zuzen daitezen. Hileko faktura ordaindu ondoren zuzentzen diren eta deskontatzen diren kontzeptuak dagozkien faktura osagarriak aurkeztu ondoren ordainduko dira.

8.6. - Osasun Saila ez da aseguramendu publikoaren babes-eremuan sartuta ez dauden pazienteen fakturazioaren erantzule izango, ezta prestazioa ordaintzeaz arduratzen den aseguru-konpainia, enpresa edo hirugarren bat duten pazienteena ere.

8.7. - Osasun Sailak erabiltzaileei dirua itzultzen badie enpresak emandako osasun-laguntzaren ondorioz sortutako gastuengatik, Osasun Sailak kontratu honen tarifak aplikatuko ditu eta gerta litezkeen erregularizazioak egingo ditu, aldez aurretik jakinarazita eta hileko fakturaren bidez.

9.- KONTRATUAREN KALITATEA EBALUATZEA ETA MONITORIZATZEA.-

9.1. - Osasun Sailak aldian behin ebaluatuko du pazienteei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea, kontratu honetan jasotzen diren adierazle eta parametroen betetze-mailari erreparatuta, eta aipatutako datu-baseen bidez.

9.2.- Administrazioak jarduerak egingo ditu kontratatutako enpresaren asistentziaren egitura eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko, bai eta Osasun Sailak kontrol sanitario, ekonomiko eta administratiboaren ikuskapenak ere. Horretarako, datuak eskatu ahal izango ditu.

10.- JARRAIBIDE SANITARIOAK ETA IKUSKAPENA.-

10.1.- Kontratuaren esparruan, enpresak konpromisoa hartzen du osasun-agintarien gidalerro eta arauetan laguntzeko, euskal herritarren esku jarritako osasun-baliabideak modu eraginkorragoan koordinatzeko.

10.2.- Enpresak, kontratua indarrean dagoen bitartean, bete beharko ditu egiaztapenaz, eta ekonomia eta osasun-estatistikari buruz informatzeaz ematen diren aginduak.

10.3.- Osasun Sailak eskura izango du kontratu honen martxa onari eragin diezaiokeen edozein dokumentu kliniko, legezkoa edo kontraktuala, hargatik eragotzi gabe enpresaren titulartasuna eta laguntza- eta kontabilitate-dokumentazioaren konfidentzialtasuna.